

## Artisten On Kixote

Irune Berro – BILBO. Bilbao 700 fundazioak On Kixoteren lurralde bihurtu du Zabalguneko azoka izandako lekua; Miguel Cervantesen pertsonaiari buruzko erakusketa bi jarri ditu: On Kixote eta artea, zenbait euskal artistak eginiko artelanek osatutakoa, eta Kixote multimedia, Cervantesen liburuaren unibertsoa erakusten duena. Espainiako Liburutegi Nazionalak antolatu du azken hori.

Bilbao kazetaren eskaerari jarraituz egin dituzte euskal artistek Kixoteri buruzko obrak. Erramun Landa, Andoni Euba, Jesus Mari Lazkano, Fernando Roscubas, Daniel Tamayo, Luis Candaudap... Guztia 44 artistak parte hartu dute. 42 margolan egin dituzte, bi eskultura (Dora Salazarrek eta Lorea Artetak) eta argazki bat (Patxi Cobok). Erramun Landaren Kixotek Ez dauzka oinak lur gainean. Izenburu hori jarri dio sei piezaz osaturiko bere koadroari. Azken garaian ohikoak dituen kolore beltz-zuri-grisak nahastu ditu artista bizkaitarrak. Sonia Ruedak Kixoteren aurpegiaren erradiografia egin du, tintarekin. Alfonso Gortazarrek Sancho Panza bidaidearekin margotu du Kixote. Eta Jesus Mari Lazkanok Gaztela-Mantxako lautada amaigabeak ekarri ditu pinturara. Patxi Cobosek haize erroten argazki zuri-beltza paratu du Zabalguneko azokan. Aldamenean ikus daitezke Encarna Cepedalek Kixoteren omenez eginiko koadro abstraktu handia, 14 piezaz osaturikoa, eta Ortiz Alfauren Kixoteren erretratu espresionista.

### Liburuaren edizio digitalizatuak

On Kixoteri buruzko obrak dira denak. Gaurkoak. Baina handik metro gutxira, Kixote multimedia erakusketaren barruan, Cervantesen liburuaren 1605. urtetik aurrerako edizioak, digitalizatuak, jarri dituzte ikusgai. Cervantesen eta Kixoteren unibertsoan are gehiago murgiltzeko, XVII. mendeko inprentaren funtzionamendua azaltzen duen bideoa jarri dute. Halaber, garai hartako letra tipoekin edozein hitz edota esaldi idatzi eta paperean etxera eramateko aukera eskaintzen du erakusketak. Baita Gabriel Corcherok eginiko Hitzen kaosa instalazioaren bidez, Kixote Mantxakoa liburuarekin sentipen berriak izatekoa ere. Entzungailu batzuen bitartez, liburuko pasarteak entzuteko aukera dauka ikusleak. Pasarte horiek, aldi berean, pantaila batean irakur ditzake. Kixoteri buruzko 52 liburutatik hartutako esaldi solteak dira, ez dute ordenarik jarraitzen, eta, ondorioz, irakurketa eta liburu berriak sortzen dituzte, azaldu du Corcherok. Obra bera kaosa da, Cervantesen hitzen kaosa, On Kixoteren bizipenen kaosa, idazlearen eta pertsonaiaren giroaren kaosa, azaldu du. Cervantesen gogotik literaturara egin zuen salto On Kixotek, eta handik zinemara. Hainbat zinemagilek egin dituzte pertsonaia haren ibileren gaineko filmak: Manuel Gutierrez Aragonek, Orson Wellesek, Peter Yatesek, Luis Arroyok... Zuzendari bakoitzak zer-nola heldu zion aztertzeke, film guztiak erakusten dituen pantaila jarri dute.